

MERTXE MUGIKA BALANZATEGI

EUSKARA BIZIBERRITZEKO ESTRATEGIAK INDARBERRITZEN ALA ESTRATEGIAK NORABIDE EGOKIAN JARTZEN?

Sabino Arana Fundazioak antolatuta, 'Euskara indarberritzen jarraitzeko bide berriak' jardunaldiaren baitako mahai-inguruan parte hartzeko gonbidapena jaso nuen. Euskararen arloan ari garen bost erakundetako partaideak aritu ginen. Nire ikuspegia emateko, mahai-inguruan erabili genuen eskemari jarraituko diot. Hasteko, esan beharra dago euskara biziberritzeko orduan beti egon izan direla bide berriak; modu batean zein bestean, etengabe ari gara indarberritzen, daukaguna moldatzen. 60ko hamarkadan sortu ziren lehen gau-eskolak, eta handik gutxira euskaltegiak.

Urte asko pasatu dira, eta orduko irakasteko metodoek, irakasleak prestatzeko baliabideek eta bezeroek ez dute zerikusirik egungo egoerarekin. Hortaz, bestelako bezeroak eta eskaerak etorri diren heinean, gure burua eraberritzen saiatu gara, eta, nire ustez, askotan, ia gehienetan, asmatu egin dugu; horren adibide, 2019-2020ko ikasturtearen atarian baieztatu dezaket euskaltegiak ikasle-kopuruak gora egin duela. Sarrera hori eginda, lehenik eta behin azalduko dut non ikusten ditudan aukerak eta mehatxuak, eta, ondoren, bide berriak nondik joan daitezkeen.

AUKERAK

- *Euskararen aldeko haizea.* Gero eta nabarmenagoa da herri honek euskaraz eta euskara oinarrian eraikitze gogo duela. Hori esateko datu objektiboak badaude: hezkuntza-arloan izaten ari den bilakaera; gero eta familia gehiagok aukeratzea murgiltze-eredua; inoizko KORRIKA indartsuenak bizi izana; eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko etorri den Euskaraldiaren arrakasta, zeina bigarren ediziorako motorrak berotzen ari den. Hortaz, aukera handia dago oraindik euskarara hurbildu ez direnak -inkesta soziolinguistikoen arabera, Euskal Herriko biztanleen erdia- euskara ikastera hurbiltzeko, eta, horrekin batera, ikasitakoa erabiltzeko ohitura hartzeko eta zabaltzeko.

- *Esparru eta era berrietan ikasteko aukerak.* Gaur egun, euskara talde batean ikastea ez da modu bakarra. Izan ere, euskaltegitik harago ere heltzen gara, eta euskalduntzea bera ere gainditzen dugu: enpresetan trebakuntza-ikas-taroak ohikoak dira, ikastaro laburrak helburu zehatz bati erantzuteko, lantokian bertan, mintzarena eta ulermena lantzeko mintzapraktika-taldeak, alfabetatze-euskalduntzeko ikastaro laburrak lanetik erretiratu berrientzat, xede bereziko taldeei begirako berariazko modulazioak eta helburuak dituzten programak... Beraz, katalogo zabala dago egon dauden behar guztiei erantzuteko.

- *Euskaraldia bezalako ekimenek zabaltzen dituzten ateak.* Euskaraz hitz egiteko sareak biderkatzen ari dira, eta horrek, dudarik gabe, euskara ez dakitenak euskarara hurbiltzea ekarriko du. Hainbat euskaltegitan, A1 eta A2 mailetako (hasiera-mailak) ikasleen matrikulazioa nabarmen hazi da. Zalantza barik, berri pozgarria, hortik baitator ezagutza unibertsalerako bidea.

- *Euskaltegien eta administrazioen arteko elkarlana.* Elkarrekin jorraturiko bideari esker, mailen egiaztagintza eta doakotasuna banandu egingo dira. Tituludunak bai, baina, euskaraz biziko diren ikasleak gaitu behar dira.

MEHATXUAK

- Azken urteetan, *euskaltegitako lana euskara-titulazioekin hertsiki lotuta egon da.* Titulua eskuratzea, ikasteko eta sustapenerako

bitartekoa izan beharko lukeena, helburua izan da askotan. Nire ustez, bide horrek kalte egin dio euskararen normalizazioari. Dena dela, aurreko lerroetan esan bezala, egoera aldatzeko bidean gaude, baina ez zait iruditzen erraza izango denik gizartean erroturikoa orain aldatzea.



- *Nafarroan euskararen sustapenak har dezakeen bidea.* Aldaketaren gobernuak urrats txiki batzuk egin zituen, baina garrantzitsuak, euskararen normalizaziorako galga guztiak baitira kontuan hartzekoak. Garai ilunetatik irten eta eguzki-izpi batzuk ikustera iritsi orduko, lehen-gora bueltatzeko arriskua egon daiteke, baldin eta Nafarroako gizarteak ez badu argi eragiten. Niretzat ulertezina da hizkuntza bati muzin egitea, berezko gorrotoa eta aurkakotasuna izatea, hizkuntzak ikasteak aberastasuna besterik ez baitakar. Are ulergaitzagoa zait bertako berezko hizkuntza denean.

- *Behar besteko baliabideen gabezia.* Aukeretan aipatu bezala, euskara esparru berrietara zabaltzen ari da, baina arlo honetan ari garen eragileok lanak izaten ditugu, sarritan, eskaera horiei behar besteko egokitasunez erantzuteko, ez dugulako izaten horretarako prestakuntza,



hermes

baliabide eta langile nahikorik. Sektorean lan egiteko baldintzak asko hobetu behar dira; bestela, nekez egin ahal izango diogu aurre datorrenari, eta, askotan aitortu den bezala, Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen sektorea ezinbestekoa da euskararen normalizazioa gauzatzeko. Horrez gain, sektoreak espezializatzeko eta prestatzeko bidea eta baliabideak behar ditu; erronka handiak daude, eta horiei guztiei erantzuteko sektore indartsu eta prestigiozua behar da.

- *Euskararen alde egotea itxurakeria hutsa izatea.* Gure helburua euskaldun erabiltzaileak sortzea da, eta hasieran itxurakeria ongi etorria bada ere, euskaren alde egotetik euskaraz egitera pasatu behar da. Euskara erdigunera ekarri behar da, prestigioa eman behar zaio, jendarteak ikasteko eta erabiltzeko beharra sentitu behar du, eta epe luzerako baliagarria dela ikusi, hau da, bizitzeko, lanerako, jolasteko, maitatzeko... tresna praktikotzat jo.

Aurreko guztia egungo egoeraren azalpena izan da. Aurrera begira, baina, bide berriek nondik jo beharko lukete? Hona hemen batzuk:

- *Metodologian sakontzen jarraitu behar da.* Ulermen aktiboa ikertu eta probatu egin behar da, eta, horrekin batera, ahozkotasuna lantzeko modu berriak urratu behar dira: testu erreala gehiago erabili, eguneroko jardunari begirako eskolak eman, hiztunak lortzeko, hiztun aktiboak, ez titulua eskuratu besterik nahi ez dutenak. Bide horretan, komunikazio-eginkizunek izan behar dute garrantzia, eta mintzamenak, entzumenak eta irakurmenak idazmenak bestekoa; izan ere, urte askoan idazmenari eman izan zaion garrantzia gehiegizkoa izan da.

- *Ikasprozesua azkartzeko baliabideetan sakondu eta aukerak ugaldtu.* Esaterako, lan-hitzarmenetan euskara ikasteko liberazioak aurreikusi behar dira; euskarak prestakuntza-atalean egon behar du, langile eta profesional onen bereizgarria izan behar da. Baina ikasteko ez ezik, erabiltzeko ere ireki behar dira bideak eta zirkuituak, Berbalagunen moduko egitasmoak esparru guztietara zabaldu, beharren eta helburuen arabera egokitu...

- *Ikastaroen diseinuan sakondu eta inbertitu.* Adibidez, lan espezifikoa egiteko programak sortu. Egun, gabezia handiak daude, nagusien zaintza-arloan, kasu. Aukera ona legoke etorkinen

gizarteratzea eta gure nagusien hizkuntza-esku-bideak errespetatzeko. Erronka polita litzateke bi mundu horiek euskararen bidez lotzea, onura besterik ez luke ekarriko! Alabaina, esandako guztia erdiesteko, sektore indartsua eta motibatu behar dugu, normalizatua, efizientea, prestigiozua, baliabidez hornitua eta bertan lan egiteko erakargarria. Oraingoan, ametsa da hori, baina epe laburrean egia bihurtu behar da, zalantza barik.

Ez nuke nahi ekarpen hau beste bi ideia aipatu gabe bukatu. Batetik, erabileraren aroan gaude, eta erronka handia dugu zeregin horretan. Nik bat egiten dut erronka horrekin, ez bairik gabe, baina mesedez, arren, otoi, ez utzi albo batera ezagutza. Datuak hor daude: oraindik jende askok ikasi behar du euskara, euskararen ezagutza unibertsala berandu baino lehen bermatu behar da, eta helburu horrek du oraindik ere lehentasunik handiena. Izan ere, nekez erabil daiteke ezagutzen ez dena! Ezagutzaz ari naizenean, ez naiz C1 mailaz ari, B1 mailaz baizik, oinarriko erabilera-mailaz, hain zuzen, denok eskuratuta nahikoa izan daiteke-eta euskara normalizatzen hasteko. Bestetik, oso ondo dago esparru bakoitzaren inguruan aritzea, ikustea non dauden indarguneak eta hutsuneak, zer egin dugun orain arte eta etorkizunari begira non jarri behar diren indarrak. Hala ere, lanbide honetan luzaroan aritu izana eta horrek eman didan eskarmentua oinarri, esan dezaket fokua erdigunean jarri behar dela, behingoz, hizkuntza-politika oso batean, hain zuzen ere, arlo guztiak aintzat eta elkarloturik hartuko dituen. Hizkuntza-politika eragingarriak ondo ezarri beharko ditu lehentasunak, politika publikoa eginez, hasieratik bukaeraraino gizarte-eragileekin elkarlanean: diagnostia, neurriak, esku-hartzeak eta ebaluazioa. Ezin dugu jarraitu esaten euskara bidegurutzean dagoela, bidegurutzetik irten behar du, norabide zuzena hartu eta euskaraz biziko den herrira heldu. Elkarrekin egiteko abagunean gaude, sistema eragilean klika egin besterik ez dugu behar: dakigunok egin, eragileak eragin eta administrazioek eginarazi.